




ekoetxea
Azpeitia

2017/18

KUDEAKETA PLANA

1. AURREKARIAK: HISTORIA ETA IBILBIDEA



30 urteko ibilbidea du egun EKOETXEA Azpeitia izenarekin ezagutzen dugun ekipamenduak eta hiru etapa desberdin ditzakegu denbora honetan:

1987-1997: Umeen Museoa

XX. mendeko laurogeigarren hamarkada hasieran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Garraio eta Turismoko Sailak, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez eta Azpeitiko Udalarekin elkarlanean, Egibar baserriaren birgaitze lanak burutu zituen eta 1987 ekainaren 5ean “Umeen Museoa” izenarekin ezagutuko zen ireki zuen. Estatu mailan, horrelako ezaugarriak izango zituen lehen ekipamendua izan zen.

Orduan, ekipamenduaren helburuak honako hauek izan ziren:

- Ingurumenaren oinarritzko ezagutzak zabaltzea metodo dinamikoago eta dibertigarriak erabiliz (Ikutzen ikasi)
- Bizigaren ingurunea eta Lurra planetaren jatorria eta garapenean gertatu izan diren fenomeno konplexuak era errazean denen eskura jartzea

Talde pedagogikoak ikastetxeetako irakasleekin egiten zuen lan zuzenean, gero haiek arduratuko ziren ezagutzak beren ikasleei zabaltzeaz.

1998-2007: Ingurugiro Etxea Museoa

1998: **Izen aldaketa:** Erakusketa aretoak birmoldatu eta berritu egin ziren eta “Ingurugiro Etxea” izen berria jarri zitzaion ekipamenduari. Izen berria ez ezik lan egiteko metodologia ere aldatu zen. Talde pedagogikoa zuzenean hasi zenikasle taldeekin lanean.

Kudeaketa eta antolaketa eredia ere moldatu egin zen eta Udalak Museoko Zuzendariaren figura sortu zuen.

Erakusketa egokitu egiten da gizarteak pairatzen dituen ingurumen arazoen inguruko kontzientzia landu ahal izateko. Arazoen inguruko kontzientziazioa, jatorria ezagutu eta etorkizunean arazoei nola aurre egin izango dira epealdi honetako helburuak.

Erakusketa osoa lau aretotan konfiguratu zen:

1 Aretoa: Lurzorua, Atmosfera eta Ura

2 Aretoa: Biodibertsitatea, Landaredia, Itsas ertza, Ibaiak
Materia eta Energia

3 Aretoa: Demografia, Hiri ekologia, Garraioa, Zarata eta
jarduera ekonomikoak

4 Aretoa: Energia, Hondakinak, Kontsumoa, Garapen
Jasangarria

Erabilera anitzeko aretoa (Bideoak, diaporamak,
hitzaldiak,...)

Saso honetan, ingurumenari lotutako beste hainbat ekipamendu sortu ziren Euskal Herrian eta horren eraginez, publikoa banatzen hasi zen.

2008tik gaur egunera arte

Erakusketaren berriuntza partziala egin eta fokua 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian jarri zen.

Aretoak birrantolatu egin ziren, espazioa eraldatu eta edukiak moldatuz, strategiaren bost erronken arabera honako helburu hauek lortzeko:

- **Ingurumen hezkuntzako zerbitzuak eskaintzea,** Ikastetxeen ziklo desberdinen ingurumen curriculumean azaltzen diren beharrei erantzuteko.
- Ingurugiro Etxea Museoaren eskaintza integratzea,

Eskolako Agenda 21 eta herrietako Tokiko Agenda 21en testuinguruan.

- 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian ezarritako helugen betetze prozesuan laguntzea

- 1 Helmuga: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea

- 2 Helmuga: Baliabdeen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.

3. Helmuga: Izadia eta Biodibertsitatea babestea

- 4 Helmuga: Lurraldeko oreka eta mugikortasuna

- 5 Helmuga: Klima aldaketaren eraginari mugak jartzea

- Gizarteak, Ingurumen eta garapen jasangarriaren inguruan dituen informazio eta ezagutza premiei erantzutea, izan ere giza, ingurumen eta ekonomia arazoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira.

2017ko lehen sei hilabetean burututako hausnarketa prozesuaren ondoren ibilbide berria diseinatu da.

1. BARNE HAUSNARKETA PROZESUA

2017aren lehen sei hilabetekoan 2017-2022 **hausnarketa estrategikorako prozesua** burutu da eta horri esker, 2022 urtera begirako marko estrategiko berria definitu da.

Prozesuan jarraitu diren urratsak honako hauek izan dira:

- Historia eta ibilbidean erreparatu
- Diagnostiko partekatua egin
- Etorkizunerako ideiak landu
- Programa operatiboa diseinatu

Historia eta ibilbidearen inguruan aurreko puntuan laburpen bat egin da.

1.1. **Diagnostiko partekatua**

Diagnostikoa egiteko jarraitu den prozesua honako elementuetan oinarritu gara:

- Funtsezko datuak eta zenbakiak
- Barruko gogoeta prozesua eta talde-lana
- Kanpoko eragileen iritziak (galdetegia)

Emaitza, gako nagusiak eta etorkizunari begirako gogoetak, honako ataletan banatu eta jaso dira:

I. Publikoa

- a. Ingurugiro Etxeak publiko berrietara zabaltzeko behar du.
- b. Nortzuk izan daitezke publiko nagusiak? Nor erakarri behar da?
- c. Ikastetxe gehiago; adibidez, eskualdekoak.
- d. Haur eta gaztetxoek esparruan: aisialdi taldeak, asteburuetako ekintzak, udalekuak...
- e. Familiak; batez ere asteburuetako ekintzekin.
- f. Hirugarren adineko pertsonak eta taldeak.
- g. Turismoari eta beste eskaintza osagarriei lotutako publikoak.
- h. Irekitze prozesu horrek aldaketa batzuk suposatuko ditu:

eskaintza berritu, baliabideak eta ordutegiak egokitu...

- i. Bestalde, publikoa hobeto ezagutzeko datu eta informazio gehiago jasotzea eta sistematizatzea komeni da. Esate baterako: bisitarien adina, jatorria eta generoaz gain, Museora gerturatzeko arrazoiak, informazioa nondik iritsi zaien, bisitaren balorazioa...

II. Ekipamendua eta instalazioak

- a. Etxean -baserrian- aldaketa batzuk egitea komeni da:
- b. Museoaren sarrera atzekaldean egotea ez da erakargarria. Atea tokiz aldatzea zaila denez, gaurko egurrezko atearen ordezkari kristalezko ate bat jartzeak beste itxura bat eta irekiera handiagoa emango lioke museoari.
- c. Sarbidean dagoen "erakusleihoak" ez du funtzionatzen, zaharkituta geratu da.
- d. Eraikin barruan ingurumenaren aldetik eraginkortasun neurriak barneratzen jarraitu behar da, adibidez, komunitan -ur kontsumoa murrizte aldera-.
- e. Ingurugiro Etxea identifikatuko duen maskota edo antzeko zerbait elementu erakargarri bat litzateke.
- f. Erakusketak azterketa sakona behar du gaurko errealitate eta pedagogia irizpideetara egokitu eta aukera berriak eskaintzeko: elementu batzuk berrantolatu, berriak sortu edo/eta teknologia berriak integratu, esate baterako. Historian zehar erakusketaren egokitzapenez Eusko Jaurlaritza egin da kargu.
- g. Bestalde hezkuntza ikuspegitik aprobetxatu daitezkeen ezaugarri propioak ere baditu Ingurugiro Etxeak; esate baterako geotermia instalazio berria, Xaguxatar parkea, eraikina bera eta ingurunea.

III. Eskaintza eta metodoa

- a. Eskaintzen diren programak aztertu, birpentsatu, egokitu eta modu erakargarrian dokumentatu.
- b. Geotermiaren instalazioa eta berritutako Xaguxatar

- parkea aitzakia hartuta programa berriak diseinatzea.
- c. Astebukaeretan ekintza gehiago, herri-eskualde mailan antolatzen diren beste egitasmoekin koordinatuta eta antolatuta; bertakoei zein kanpoko bisitariei zuzenduta.
 - d. Udalekuetako eskaintza planifikatu, eta ez bakarrik umeei zuzendutakoa.
 - e. Eskolako Agenda 21 programari buruzko barne-hausnarketa: zein izan daiteke Museoaren eta gure papera programa horretan?
 - f. Metodo praktikoagoa heziketa arloan: nola erabili dauzkagun baliabideak modu eraginkor eta erakargarriagoan?

IV. Komunikazioa

- a. Orokorrean:
- b. Aztertu beharreko puntua: Museo "etiketa" zenbateraino da onuragarria?
- c. Marka: Ekoetxea Azpeitia marka landu behar du Museoak Eusko Jaurlaritzarekin batera, balio bereizgarria identifikatu eta indartze aldera. Beste Ekoetxeek badute bakoitzak bere ezaugarri propioa: Plaiaundi-hegaztiak, Madariaga-itsasoa... Eta Ekoetxea-Azpeitiak? Zein izan daiteke balio bereizgarria?
- d. Komunikazio plan bat landu behar da Ingurugiro Etxea eta bere eskaintza funtsezko publikoei helarazteko.
- e. Sare sozialetan presentzia gehiago ezinbestekoa da. Museoan egiten diren ekintzen ohiartzuna eskasa da.
- f. Arlo zehatzetan:
- g. Turismo arloarekin harremana sendotu behar da: eskuorriak, koordinazioa...
- h. Ikastetxeak Museora gonbidatzeko mailing-a birpentsatu behar da -urtean behin bidaltzen zaie posta elektronikoz Euskal Herriko ikastetxe guztiei eta euskaltegiei. Guztira 3.000 mezu dira-. Bere garaian horrela egiteak funtzionatu zuen ikastetxeak erakartzeko, baina gaur

egun ez hainbeste. Zerbait pertsonalizatuagoa behar da; papera ere garrantzitsua da.

V. Sarea

- a. Eskualdeko eta Azpeitiko eragile eta taldeekin harremanetan jarriz lan amankomuna egiteko. Adibidez mendi taldeekin, aisialdi taldeekin...
- b. Eskualdeko beste ekipamendu osagarriekin harremana areagotu behar da - Zumaiako flysh, Zestoa...-.
- c. Kontaktua eta hartueman gehiago behar da Udaleko sail desberdinekin.
- d. Ekoetxeen sarean parte hartu.
- e. Euskal Herriko antzeko beste ekipamendu batzuek osatzen duten sarean integratu eta elkarlana sustatzea -Eusko Jaurlaritzak bultzatuta-.
- f. Antolatzen diren topaketa, kongresu, eta abarretan parte hartu.

VI. Kudeaketa eta antolakuntza

Aukera zabalak - eta aldi berean, ezinbestekoak- ikus daitezke:

- a. 2018an Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena landu eta egokitu egin behar da.
- b. Ingurugiro Etxearen kudeaketa plana birpentsatu eta aldatu egin behar du lantaldeak.
- c. Lantaldearen egiteko erak berriz hausnartu eta landu egin behar dira, egiteko modu eraginkor eta egokiagoak eraikitze aldera

Kanpoko eragileen bitartez informazioa ere jaso da eta gutaz zer esaten duten eta nola definitzen gaituzten galdetzean honako emaitzak jaso dira:

“Ingurugiro Etxea...”

- ***Ingurumenaren eta jasangarritasunaren inguruko topalekua da: gaiaz ikasi eta hezteko, kontzientzia hartzeko eta ohitura onak bultzatzeko.***

- **Azpeitiko erreferente bat da: umetatik hasita eta familientzat. Aurten ekintza asko zabaldu dira aste bukaeretara; bikain! Oso ideia ona.**
- **Ikastetxeen ekipamendu osagarria da”.**

Hausnarketa prozesuan, Xedea eta misioa definitu, baloreak identifikatu eta ildo estrategikoak ezarri dira.

1.2. XEDEA

Azpeitiko, eskualdeko zein kanpoko publiko orori ingurumenaren eta gizartearen arteko harremanen inguruan ezagutza, sentikortze eta jabeazteko baliabideak, aukerak eta esperientziak eskaintzea, modu dinamiko, erakargarri eta alalian, bertakotasuna ezaugarri izanik eta beti ere, eguneroko bizitzan jasangarritasunarekiko erantzunkidetasuna modu xumean sustatzeko helburuz.



1.3. BALOREAK

Zein baloretan oinarritzen da Museoaren xedea?



1.4. **ILDO ESTRATEGIKOAK**

Ildo estrategikoak definitzeko garaian hainbat, kanpora zein barrura begiratu ostean, Ekoetxea Azpeitia non egon behar duen begiratu da eta honako aspektuetan jarri da fokua: **Publikoa, Ekipamendua, Eskaintza, Azpeitian oinarrituta egotea eta Lan taldea.**

Bost urteko epealdirako, bost erronka nagusi definitu dira, ekipamenduarekin bat eta bere historia eta gaurko egoera kontuan hartuz.

Honako hauek dira hain zuzen ildo estrategikoak:

IE.1 Ingurugiro Etxea Publiko Berrietara Zabaldu:

hezkuntza komunitatetik Azpeitia Ekoetxea ireki eta zabaltzeko.

IE.2 Etxea eta ekipamendua egokitu:

erakusketa, espazioa eta bestelako elementuak aztertu eta berritu

IE.3: Eskaintza osatu eta metodologia berritu:

eskaintza zabala eta integrala mantenduz, metodo pedagogikoan eboluzionatu.

IE4: Komunikatu, sarea eraiki eta elkarlanean aritzeko:

Azpeitian oinarrituta eta harago zabalduko dena.

IE5: Kudeaketa eta lan taldea:

funtzioak, antolaketa, kudeaketa eta baliabideak.

2. 2017-2020 ESTRATEGIA

Txosten honetan Ingurugiro Etxearen programa operatiboa jasotzen da 2017-2022 eperako.

Datozen 5 urteei begira Ingurugiro Etxean garatu beharreko lan ildo eta proiektu nagusiak jasotzen ditu.

Eta azken hilabeteetan beheko eskema jarraituz egindako hausnarketa estrategikoaren emaitza da.



Zer lortu nahi du programa honek?

- 5 erronka nagusi edo ildo estrategikoei forma eta edukia ematea.
- 5 urteko epean Ingurugiro Etxearen xede eta misioari ekarpena eginez.
- Museoaren filosofia eta baloreekin bat eta bere historia eta gaurko egoera kontuan hartuz



IE1 PUBLIKO BERRIETARA ZABALDU.

Helburu zehatzak:

- Hezkuntza komunitatearen fideltasuna mantentzea, ikastetxe berriak erakartzeko ahalegina eginez -bereziki eskualdekoak-.
- Astean zehar, talde eta kolektibo zehatzen parte hartzea gehitzea; adibidez eta zehazki, adineko pertsonen taldeak.
- Haur eta nerabeak erakartzea bere aisialdian: astebukaerak, oporraldiak, udalekuak.
- Familiak erakartzea, batez ere astebukaeratarako eta oporraldietako jardurekin.
- Turisten bisitak.

Helburu hauek lortzeko, honako programak definitu dira:

P 1.1. 2017-2022 eperako Ingurugiro Etxearen funtsezko publiko objetiboen segmentazioa eta karakterizazioa.

- Ingurugiro Etxearen funtsezko publikoen azterketa eta karakterizazioa, hezkuntza komunitatea eta bestelako publikoak desberdinduz.
- 2017-2022 eperako desberdindutako publiko bakoitzarentzat urteko bisitari kopurutan helburuak definitzea.
- Publiko objetibo berri horien erakartze aktiboa -jarduera programaren bidez eta komunikazio planarekin koordinatuta-.

P 1.2. Ingurugiro Etxearen publikoen ezagutza.

- Museoak antolatzen dituen jardueren berri jaso nahi duten pertsonen datu basea sortu eta mantentzea.
- Ingurugiro Etxearen lagunen sarea sortzea.
- Asebetetze inkesten lanketa bisitariekin: familiak, taldeak, astebukaeretako erabiltzaileak, oporraldietan joaten direnak... Honako informazio mota jaso eta sistematizatuz: adina, jatorria, generoa, Museora gerturatzeko arrazoiak, informazioa nondik iritsi zaien, bisitaren balorazioa

P 1.3. Ingurugiro Etxearen egokitzapena funtsezko publiko objetibo berrietara.

- Irekiera ordutegiaren berrikusketa eta optimizazioa publiko objetiboen eta urtean zehar garatu beharreko ekintza programaren arabera.
- Museorako maskota edo antzeko zerbaiten behararen azterketa. Bere garaian Dinotxu elementu interesgarria izan zen eta Museoa identifikatzen lagundu zuen

IE2 ETXEAN ETA EKIPAMENDUAN ALDAKETAK EGIN.

Helburu zehatzak:

- Etxean zenbait hobekuntza aurrera eramatea - Ingurugiro Etxeak bilatzen duen irekiera prozesuarekin bat eginez; eta eraikin jasangarri bati dagozkion baliabideen erabilerari lotutako eraginkortasun neurriak barneratzea -baserria bera adibide hartuta- .
- Erakusketaren edukiak berrikusi eta eguneratzea Museoaren irizpide pedagogikoekin bat.
- Ingurugiro Etxeko barruko espazioen erabilera aztertzea eta garatu nahi den eredu pedagogikoaren araberrako hobekuntzak aurrera eramatea.
- Aukera berriak aprobetxatzea programa pedagogikoan txertatzeko: geotermia instalazio berria, Xaguxatar parkea, eraikina bera eta ingurunea.

Helburu hauek lortzeko bost programa definitu dira:

P 2.1. Etxearen egokitzapena eta hobekuntza.

- Etxearen eraginkortasuna areagotzeko hobekuntzekin jarraitzea; adibidez komunitan -ur kontsumoa murrizte aldera-.
- Ingurugiro Etxerako sarrera eta aterpearen azterketa eta osoko hobekuntza: sartzera gonbidatuko duen ate bat jartzea, gaurko erakuslehioaren egokitzapena.
- Baserriko geotermia instalazioan egindako obrak osatzea.

P 2.2 Ingurugiro Etxeko erakusketa iraunkorraren berrikusketa eta bertako espazioak optimizatzeko aukeren azterketa

- Erakusketan aldatu eta hobetzeko beharren ikerketa zehatza.
- Erakusketa berriak izan beharko lituzkeen irizpide pedagogikoaren garapena: jolasaren erabilera, teknologia berriak eta abar.
- Erakusketari dagokionean eta aurreikusitako programazioari eta ezaugarri berriei erantzun emateko espazioan bertan eman beharreko aldaketen azterketa egitea -diseinatzen den jarduera programaren arabera-.
- Erakusketa hobetzeko eta espazioan beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko proiektua gauzatzeko hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin.
- Erakusketa berriaren diseinuan, onarpen prozesuan eta beharrezkoak diren obren jarraipenean parte hartzea.
- Espazioen diseinu eta erabileran hobekuntzak barneratzea

P 2.3 Kontsumo Gelaren etorkizun egokienari buruzko azterketa eta erabakia.

- Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.rekin azterketa bateratua, hezkuntzarako eta sentikortzeko baliabide gisara alternatiba egokiena bilatze aldera.
- Hartutako erabakiari lotutako ekintzak gauzatzea

P 2.4 Geotermia instalazioaren eta Xaguxatar parkearen garapena.

- Museoak eskaintzen dituen jarduera-programara eta bisitetara gehitzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzea bi instalazio horietan.

P 2.5 Ingurugiro Etxearen eskaintzara instalazio berriak gehitzearen inguruko bideragarritasun azterketa egitea.

- Baratza jarduera osagarrien programara gehitzeko aukerak aztertzea.
- Inguruko biodibertsitatea -erreka, mendiak, landaretza...- ezagutzen lagunduko duten ibilbideak gehitzeko aukerak aztertzea.
- Ingurugiro Etxearen eskaintza Tren Museoarenarekin lotzeko egon daitezkeen aukerak aztertzea -adibidez alokairuzko bizikleta sistema bat martxan jarriz-.

IE3 ESKAINTZA ETA METODO PEDAGOGIKOA BERRITU

Helburua zehatzak:

- Eskaintzen diren programen metodologia pedagogikoa aztertu, birpentsatu, irizpide berriak finkatu, egokitu eta modu erakargarrian dokumentatzea.
- Ingurugiro Etxearen eskaintza eta ezaugarriak sendotu eta sustatzea, metodo pedagogikoarekin koherentzia eta arreta zaindua eta pertsonalizatua mantenduz.
- Astebukaeretakoko ekintza programa osatu eta martxan jartzea.
- Udako eta oporraldietako eskaintza planifikatzea, publiko objetiboek zuzenduta. Ingurugiro etxearen esperientziatik Eskolako Agenda 21 programaren aldaketa eta hobekuntza prozesuari ekarpena egitea.

Helburu hauek lortzeko, zazpi programa definitu dira:

P 3.1 Datozen 5 urteetan Ingurugiro Etxearen eskaintzan garatu nahi diren irizpide pedagogikoen definizioa, Museoaren misio eta baloreekin bat.

- Beste esperientzia/kasu batzuen azterketa, ondorio batzuk ateratze aldera.

- Etapa berri honetarako irizpide pedagogikoen identifikazio bateratua – lantalde osoak, talde pedagogikoa barne-. Adibidez: jolasaren bidezkoa izatea, parte hartzea sustatzea, sormena eta esperimentazioa ardatzak izatea

P 3.2 . Hausnarketa estrategiko honetatik eratorritako beharrei egokitutako formakuntza plana Ingurugiro Etxeko lantaldearentzat.

- Formakuntza beharren identifikazioa.
- Ingurugiro Etxeko lantaldearentzat bereziki diseinatutako formakuntza-ibilbideen garapena

P 3.3 Museoak dagoeneko eskaintzen dituen programen berrikusketa, badagokio hobekuntzak barneratuz, definitutako irizpide pedagogikoetan oinarrituz.

- Barneratu beharreko aldaketa eta hobekuntzen identifikazioa.
- Dagoeneko esistitzen diren programen egokitzapena dinamika berriak, proposamen metodologiko desberdinak... barneratuz.
- Hezkuntza komunitateko irakaslegoarekin izan den gertuko harreman zuzena eta zaindua mantentzea

P 3.4 Eskaintza eta programa berrien diseinua.

- Geotermia instalazioari lotutako programa pedagogikoaren diseinua.
- Xaguxatar parkeari lotutako programa pedagogikoaren diseinua.
- 2017-2022 epeari begira aukera berrien ikerketa eta garapena: baratza eta elikadura, biodibertsitatea ezagutu eta lantzeko ibilbideak, mugikortasun jasangarria eta Tren Museoarekin lotura posiblea.
- Azpeitiko edo eskualdeko beste eragile edo pertsonekin lankidetzan eskaintza berria osatzeko dauden aukerak aztertzea

P 3.5 Astebukaeretakako hiruhileko jarduera programazioaren diseinua eta garapena - Museoaren funtsezko publikoen arabera-.

- Beste esperientzia batzuen azterketa ondorio batzuk ateratze aldera.
- Hiruhileko programazioaren oinarrian egon behar duten irizpideen definizio bateratua.
- Hiruhileko programazioaren diseinua –gero Ingurugiro Etxeak garatzeko edo/eta beste eragile batzuekin lankidetzan-; beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak identifikatzea.
- Garapena eta ondorengo ebaluazioa

P 3.6 . Uda parterako programazio baten diseinua eta garapena: udalekuak eta bestelako programak.

- Beste esperientzia batzuen azterketa, ondorio lagungarriak ateratze aldera.
- Udako programazioaren oinarrian egon behar duten irizpideen definizio bateratua: udalekuak eta bestelako programak.
- Jardueren diseinua -Ingurugiro Etxeak gauzatzeko edo/eta beste eragile batzuekin lankidetzan-; beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak identifikatzea.
- Garapena eta ondorengo ebaluazioa

P 3.7 Eskolako Agenda 21 programa mantentzea eta beharrezkoak diren hobekuntzak barneratzea.

- Ingurugelarekin elkarlana programaren diseinuan eta kudeaketan landu daitezkeen hobetzeko arloak identifikatzeko.
- Eskolako Agenda 21 programaren urteroko garapena -urtez urte behar diren egokitzapenak eginez-

IE4 KOMUNIKAZIOA ETA SARETZE LANA.

Helburu zehatzak: Ingurugiro Etxearen komunikazioa garatzea.
Zehazki:

- Ekoetxe Azpeitia marka lantzea Eusko Jaurlaritzarekin batera.
- Komunikazio plan bat diseinatu eta garatzea bere osotasunean.
- Sare sozialetan presentzia gehiago bultzatu. Saretze lana egin eta harremanak garatzea maila desberdinetan:
 - Udaleko sail desberdinekin.
 - Eskualdeko beste ekipamendu osagarriekin.
 - Ekoetxeen sarearekin.
 - Euskal Herriko antzeko beste ekipamendu batzuekin -Eusko Jaurlaritzak bultzatuta-.

Bost programa definitu dira helburuak lortu ahal izateko:

P 4.1 Ekoetxea Azpeitia markaren garapena, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

- Azpeitiko zentroaren balio bereizgarrien identifikazioa.
- Beharrezko aldaketak barneratzea seinaleztapenean, eraikin barruan, Museoko dokumentazioan...
- Aldaketaren eta haren arrazoien berri azpeitiarrei ematea, egokitzapena ezagutu eta uler dadin.

P 4.2 Komunikazio plana.

- Planaren helburu zehatzen definizioa.

- Funtsezko publikoen identifikazioa -Museoaren eskaintza berriaren arabera-.
- Komunikatu beharreko mezuen zehaztapena, publiko bakoitzarentzat.
- Erabili beharreko kanalen hautaketa, publiko desberdinentzat.
- Plana garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideen zehaztapena eta soluzio egokien bilaketa.
- Komunikazio ekintzen garapena.
- Haien eraginaren ebaluazioa.
- Eta plana garatzen den bitartean, ikastetxeekin kontaktatzeko mailing-sistemaren berrikustea.

P 4.3 Ingurugiro Etxeko webgunearen etengabeko eguneratzea eta sare sozialetan presentzia.

- Komunikazio planaren helburu eta edukiekin koordinatuta.
- Eragina neurtzea ahalbidetuko duten jarraipen-adierazleak definituz.
- Beharrezkoak diren baliabideen identifikazioa eta “soluzio imaginatiboak” bilatzea

P 4.4 Azpeitiko eta Eskualdeko eragileekin lankidetzak bilatzea.

- Udaleko beste sail batzuekin koordinazioa eta lankidetzak aktiboa.
- Azpeitiko eta Eskualdeko beste ekipamendu interesgarriekin lankidetzak aktiboa bilatzea.
- Azpeitiko eta Eskualdeko eragile, talde eta elkarteekin lankidetzak

P 4.5 Ingurugiro Etxea parte den lan-sareetan parte hartze aktiboa.

- Eusko Jaurlaritzako Ekoetxeen sarean parte hartze aktiboa.
- Euskadiko ingurumen hezkuntzarako ekipamenduen sarean parte hartze aktiboa.
- Estatuko edo/eta Europako beste zentroetan egiten ari diren lanaren jarraipena: ideia eta praktika onak bilatzea

IE5 KUDEAKETA ETA LAN TALDEA.

Helburu zehatzak:

- Ingurugiro Etxearekiko Eusko Jaurlaritzaren finantzazioa eta babesa bermatzea datozen urteetarako.
- 2017-2022 estrategiarekin bat Ingurugiro Etxeko lantaldearen funtzioak eta ardurak argitzea.
- 2017-2022 plangintza estrategikoa gauzatzea ahalbidetuko duen urteko kudeaketa plana diseinatu eta garatzea.

- Lantaldearen egiteko erak birpentsatu eta garatzea.

Helburuok lortzeko, lau programa definitu dira:

P 5.1 Estrategia hau garatzeak eskatzen dituen beharren identifikazioa eta horren araberrako funtzio eta arduren izendapena.

- Planetik eratorritako beharren eta funtzioen identifikazioa.
- Ingurugiro Etxeko lantaldean funtzio eta arduren izendapena.
- Zenbait zeregin “modu imaginatiboan” garatzea erraztuko duten soluzio desberdinen azterketa. Adibidez: zentroko “community managerra”, hezitzaileen laguntza jarduera zehatzetan...

P 5.2 Ingurugiro Etxeko lantaldearen garapena.

- Lantaldearen gaurko egiteko moduen azterketa eta berrikusketa bateratua.
- Indarguneen eta hobetzeko arloen identifikazioa.
- Hobetzeko arloak lantzeko formakuntza espezifikoa
- Talde-lana eta lantaldea sendotzea erraztuko duten aldaketak barnerratzea

P 5.3 . Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena zentroaren finantziario partziala bermatzeko.

- 2017-2022 epean plan hau garatu ahal izateko beharrezko inbertsioaren azterketa ekonomikoa.
- Planaren garapenari lotutako diru-sarrera eta finantziario-iturri posibleen azterketa. Adibidez: tailerretan parte hartzeko sarrerak, udalekuak, enpresekin lankidetzeta (gizarte erantzunkizun programen bidez), erakunde publikoekin lankidetzeta...
- 2017-2022 eperako finantziario hitzarmenaren negoziarioa Eusko Jaurlaritzarekin

P 5.4 Ingurugiro Etxearen urteko kudeaketa plana.

- Lantaldearentzat tresna baliagarria izango den kudeaketa plan on bat definitzeko aholkularitza.
- Kudeaketa planaren urteroko garapena, definitutako funtzio, zeregin eta ardurekin koherentzia mantenduz.
- Bere garapenaren etengabeko jarraipena.
- Urteroko ebaluazio partehartzailea: kudeaketa adierazleak, asebetetze inkesten tratamendua, lantaldearen balorazio kualitatiboa

3. 2017-2018 URTERAKO PLANA

4. ADIERAZLEAK

I ERANSKINA

**2017-2018 KUDEAKETA PLANA (LEHENTASUNAK ETA ARDURAK
ZEHAZTUTAI**